

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Ikastetxeek jada eman dezakete izena Labor-ESO programan

Gaur zabaldu da Labor-ESO programaren deialdia, zeinaren bitartez DBH 3. mailako ikasleek enpresetan egonaldiak egin ditzaketen beraien lan etorkizunaren inguruan erabakitzeke prestaketa hobetuz

Asteartea, 2018.eko azaroak 20

Hezkuntza Departamentuak [gaur argitaratu ditu NAOn](#) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailako Ikaskuntza eta Errendimendua Hobetzeko Programen baitan aritzen diren ikasleek Labor-ESO programan parte hartzeko deialdiaren oinarriak. Labor-ESOk ikasleek enpresetan bi asteko egonaldiak egiteko aukera ematen du. Ekimen honen bitartez ikasleek beraien etorkizuneko ikasketak zein arlo profesionalaren inguruan hobeto erabaki ahal izateko trebetasunak, ahalmenak eta interesak garatzen dituzte.

Hala, Departamentuko orientazio zerbitzuak jada IEHP programa eskaintzen duten ikastetxeei ekimen honetan parte hartzeko gonbidapena luzatu die ikastetxeei eta orientatzaileei izena emateko beharrezko informazioa eskura jarri die aplikazioan.

Deialdi hau Nafarroako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasketak eskaintzen dituzten ikastetxeei dago zuzenduta eta programak 2018-2019 ikasturtean Ikaskuntza eta Errendimendua Hobetzeko Programan (IEHP) parte hartzen duten ikasleei dagokio; ikasle horiek bi asteko egonaldiak egingo dituzte enpresatan aurrez ikastetxearekin hitzartutako zereginak gauzatu. Horretarako, ikastetxeak aurretik beharrezkoak diren ekintzak prestatuko ditu eta irakasleek ikasleen jarraipena egingo dute.

Programa honi esker ikasleek lanpostu ezberdinen inguruko zuzeneko ezagutza lortzen dute eta beraien etorkizun profesionalan landu ditzaketen trebetasunak eta ezagutzak eskuratzen dituzte. Zenbait kasutan beharrezkoa den motibazioa lortuz; izan ere, programak etorkizuneko lanbideekin frogatzen egiteko aukera eskaintzen du eta ikasten jarraitzea animatzen ditu ikasleak. Orain arte parte hartu duten ikastetxeek baikorki baloratu dute ikasleen parte hartzea, izan ere ikasleei beraien DBHko ikasketak amaitzeko, zein harremanetarako trebetasunak garatu eta etorkizunean hartu nahi duten bidearen inguruan hausnarketara bidea zabaltzen die. Helburua ez da lanbide bat ikastea, baizik eta lan munduarekin kontaktuan jartzea, ordutegi bat, lan eremuko harremanak, etab. landuz bi asteko epean.

[Ihazko ikasturtean](#) Labor-ESO programaren IX edizioan parte hartu zuten ikasleei 131 diploma banatu zizkien Hezkuntza Departamentuak. Ikasleek 110 enpresa edo kolaboratzaileen zentrotan egin zituzten

praktikak.

Hamargarren edizio honetan parte hartzeko eskaera deialdiak ikasleek praktikak egin aurretik egin beharko dituzte ikastetxeek.